



Hondarribiko
Udala

Esp. Kod./: 2019ES020001

Erref./Ref.: K.G.

1747 /2019 DEKRETU ZK.

BLAGAN ELKARTEARI, euskararen aldeko ekintzak antolatzeagatik, dirulaguntza izenduna ematea.

Blagan elkarteak, euskararen aldeko ekintzak antolatzeari buruzko dirulaguntza eskatzeko, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu du:

- ◆ Diru-laguntza eskaera normalizatua.
- ◆ Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- ◆ Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- ◆ Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- ◆ Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- ◆ Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitortpena.

Idazkaritzak emandako aldeko txostena ikusirik eta era berean Kontu-hartzaileak aurrekontu kontsignazioa badagoela dioen emandako eginbidea ikusirik,

Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBATZI DU:

Lehenengo.- Euskararen aldeko ekintzak antolatzeari, zuritu beharreko, **9.000 €**ko diru-laguntza izenduna ematea.

Bigarren.- Hondarribiko Udalaren eta Blagan arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Hirugarren.- Diru-laguntza, ondoan zehazten diren epeetan ordainduko da:

1. % 60 (**5.400 €**), hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.
2. % 40 (**3.600 €**), proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren

Laugarren.- Diru-laguntzaren gastua, **D-2781/19** erabiliaren kargura izango da.



Hondarribian, 2019ko urriaren 9an
ALKATEA/EI Alcalde,

Izp./Fdo.: Txomin Sagarzazu Ancisar